

MIRENEN LIBURUA

Miren, Jana eta Nahia liburutegian **mahai baten inguruan** eseri dira. Mahai **gainean** kolore askotako liburuak jarri dituzte eta hitz egiten hasi dira. Hiru neskak poz-pozik daude eta oso gustora **elkarrekin** hitz egiten.

Shilin **neskeengana** hurbildu da:

- Egunon neskak! Zer duzue hor, mahai gainean?- esaten die Shilinek.
- Gure liburu berriak.- erantzuten diote neskek.
- Liburu berri hauek irakurtzeko dira?-galdetzen die Shilinek.
- Ez, ez dira **irakurtzeko**. Pegatinak **itsasteko** eta **margozteko** dira.
- Oso ondo! Holakoak dira niri gustatzen zaizkidan liburuak.- dio Shilinek.
- Zuri irakurtzea ez zaizu asko gustatzen ezta Shilin?- dio Mirenek.

1- Borobildu erantzun zuzena:

Miren..... dago.

- o Jana eta Nahiarekin.
- o Mikelekin.
- o Andrearekin.

Neskakdaude.

- o jolastokian
- o liburutegian
- o liburudendan

Neskak eseri dira.

- o aulkiaren inguruan
- o atearen inguruan
- o mahaiaren inguruan

Liburuak jarri dituzte.

- o mahai gainean
- o mahai azpian
- o armairuaren gainean

Liburuak

- o Itsasteko eta margozteko dira
- o Irakurtzeko dira.
- o Idazteko dira.



2- Borobildu BAI ala EZ.

- Neskak jolastokian daude.

BAI EZ

- Neskek goxokiak dituzte.

BAI EZ

- Shilinek neskeekin hitz egiten du.

BAI EZ

- Shilini liburuak gustatzen zaizkio.

BAI EZ

- Shilini irakurtzea asko gustatzen zaio.

BAI EZ

3- Non daude neskak?

Neskak _____

4- Non jarri dituzte liburuak?

Neskek _____

5- Nor hurbildu da neskeengana?

Neskeengana _____

6- Nolakoak dira liburuak?

Liburuak _____

7- Zer gustatzen zaio Shilini?

Shilini _____

8- Hurrengo esaldiak osatu:

- Miren _____ dago.
- Neskek _____ dituzte.
- Miren _____ erantzuten dio

(kamioi gainean, mahai gainean, patinen gainean)